

AITA! AMA! NOR DA JAUNGOIKOA?

Doinua: "Txin-txin...Txin-txin"

**- !AITA, AMA!
- ZER DA, SEMETXOA?
- JAKIN NAHI NEUKE ZELAKOA DAN
GURE JAUNGOIKOA.**

1

- Seme, maite zaitugu
guk ezin gehiago,
aita ta ama guztiak baino
gaitu maiteago.

2

Ez dozu Jesus txiki
Belenen ikusi?
Aitak bialdu ta Berak deusku
nor dan erakutsi.

3

Aita ezagutzeko
Jesusi jarraitu,
seme-alaba egin gaitu ta
Beragaz nahi gaitu.

4

Aitak doan emonda
Jesus dogu lagun,
ez ahaztu, seme, orain ta gero
zer lagun daukagun.

5

Zure lagunak doaz,
eleizara, Yontxu,
han ezagutzen dabe Jesus ta
dabiltz zoriontsu.

6

Bera dogu guztion
Aita eta Ama,
txiki ta haundi bereak gara,
semetxo laztana.

7

Alkar lagundu eta
maitatu ezkerro,
Jaungoiko Aita gurekin dago
orain eta gero.

8

Zure aitak ta amak
hau sinisten dabe,
gu ezin gara hain pozik bizi
Jaungoikorik gabe.

A. Martzel